

Euskal Herriko Gazte Orkestra. **Zuzendaria:** Juan José Ocón.
Bakarlariak: María Rallo (biola), eta Julen Zelaia (biolina).
Egitaraua: Shostakovitx eta Mozarten obrak. **Lekua:** Gasteizko
 Principal Antzokia. **Data:** urtarrilaren 3a.

Etorkizun oparoa

HERRI BATEN BENETAKO ABERASTASUNA bere kultura da, dudarik gabe. Horrexegatik, krisialdietan ez dugu iparra galdu behar, nahiz eta ekonomiaren arazoak buruhauste garrantzitsuenak izan, kulturaren etorkizuna eta gazteen sentsibilitatearen hezkuntza izan behar ditugu kezka nagusi, astotze orokorraren kontra.

Euskal Herriko Gazte Orkestrak hamabost urteko ibilbide interesgarria dauka, eta aipatutako helburuarekin bat datorrena. Hainbat talentu atera dira kabia honetatik, eta asko eta asko aterako dira. Honen froga orkestraren neguko kontzertu zikloa izan da. Interpretazio doiak, gustu onekoak, Juan José Ocón-en batuta atsegin eta goxoaren agindupean, taldearen kalitatearen seinalea izan ziren, baina saioaren alde deigarriena bakarlariak izan ziren. María Rallok, biolan, hamabost urterekin, eta Julen Zelaia hamazazpi urteko biolin joleak musikaltasun eta taula gaineko taxuaren lezioak eman zituzten.

Dimitri Shostakovitxekin hasi zen kontzertua. Egile honen “110 Ganbera-sinfonia”, 8. hari-laukotearen *ensemble*-rako modaketa da, “faxismoaren eta gerraren biktimei” eskainia, eta Rudolf Barshairen hari-orkestrarako bertsioaren bitartez egina. Bigarren Mundu Gerrak jende guztiari sortu zion zauri sakona adierazi nahi izan zuen Shostakovitxek, lan honekin. Ederki transmititu zituzten Gazte Orkestrakoek obrak azaltzen dituen sentimendu guztiak: mehatxua, beldurra, etsipena... ezin hobeki irudikatu ziren. Sonoritate bero eta musikaltasun malgua izan ziren ezaugarri nagusiak.

Giro ludikoagoan sartu ginen jarraian Mozarten “Biolin, biola eta orkestrarako sinfonia kontzertantea, K 364” obrarekin. Biolin bakarlariarentzat, biola bakarlariarentzat, bi oboe, bi tronpa eta harietarako idatzita dago lana, eta esan daiteke sinfoniaren eta kontzertuaren artean dagoen genero moduko delan hau, oso aproposa Rallo eta Zelaia bakarlariak luzitzeko, benetan zailak baitira haien partiturak. Ez ziguten huts egin bi gaztetxoek. Eskarmentu handiko artistak bezala aritu ziren, seguruak eta taxudunak. Primeran bete zuten bere rola, bai teknika aldetik, bai interpretazioaren aldetik. Eta teknika soberan dutela agerian geratu zen, propina gisa jo zuten duoarekin, deabrukeriaz josia baina erabat menderatua.

Orkestrak ere bis bat oparitu zion publikoari, oso berezia. Euskal Herriko Gazte Orkestraren kidea izandako Fernando Velazquez konpositorearen *Lo imposible* filmaren soinu banda, hain saritua. Benetan polita, benetan ondo interpretatua. Zorionak. ■

Montserrat Auzmendi



2013
 txotxongiloak, lpuin kontalariak, magia, antzerkia...
 Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 2-8 urte

02/06 POTXIN ETA PATXIN
 18:00etan Errekaldeko udalategian

02/07 MONDA ETA LIRONDA
 18:00etan Tiboli eskolan

02/08 TOR MAGOA
 18:00etan Abandoko udalategian

02/09 TTINBILI-TTINBALA
 11:00etan Deustoko Bidarte udalategian

02/12 ANIMAGIC
 18:00etan Begoñako udalategian

02/13 BAT, BI, HIRU...FESTA!
 18:00etan Errekaldeko udalategian

02/14 ONINTZE GOITIZ KONTALARIA
 18:00etan Tiboli eskolan

02/15 APIKA TALDEA
 18:00etan Abandoko udalategian

02/16 TXOBORRO MAGOA
 11:00etan Deustoko Bidarte udalategian

02/19 BAZEN BEHIN CLOWN
 18:00etan Begoñako udalategian

02/20 MAGIKLOWN
 18:00etan Errekaldeko udalategian

02/21 ZIRKUN ZIRKO
 18:00etan Zamakola eskolan

02/22 ELVI
 18:00etan Abandoko udalategian

02/23 ZURRUNKA ANTZERKI TALDEA
 11:00etan Deustoko Bidarte udalategian

02/26 EIDABE ANTZERKIA
 18:00etan Begoñako Udalategian

Bilbao topagunea
 ARDIA FAMILIETO